

BEZEROEKIKO HARREMANAK



Negoio guztietan bezeroak dira punturik garrantzitsuenetako bat, horiek gabe ez baitago funtzionario-negoziarik. Haiekin harreman ona izatea ezinbestekoa da, lor dezakegun publizitaterik onena bezeroen bidez bakarrik lortuko baitugu.

Gure enpresak bezeroarekin harreman zuzena izan nahi du beti, AV kalitatea hobetzeko. Hasteko, gure aplikazioak egiten duena ahalik eta argien azaltzea izango da gure marketinaren ardatza. Ez dugu nahi bezeroek ezereen zalantzarik izatea, ezta aplikaziotik ez den beste zerbaiten zain egotea ere. Horrela lortuko dugu bezerorik ez galtzea, eta harreman bat eraikiko dugu argitasunaren eta egiaren bidez.

Jakinazpenak animozko eta intrigazko esaldiekin bidaliko ditugu aplikaziotik, instalatuta dutela eta irekitzeko gogoia eman diezaieten. Eta, aldi berean, egun bereziak egingo ditugu deskontuekin edo x2 egunekin, bezeroak monotoniaz nekatu ez daitezten. Azkenik, sare sozialen bidez, foroak igoko ditugu, jendeak gurekin elkarreragiteko aukera izan dezan eta nahi dutena galde diezaguten, beti jakin dezaten adi gaudela eta haiengandik ahalik eta hurbilen egon nahi dugula.